

HARREMANAK

Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?

Lehen esan dugun bezala, bezeroak erakartzeko bide bat, gure webgunea izango litzateke. Bertan, proiektu turustikoaren informazio guztia egongo da. Gainera, gurekin kontaktuan jartzeko edo zalantzak argitzeko asmoarekin norbait badago, gure telefono zenbakia ere egongo da interneteko gunen hartan.

Esperientzia ahaztezina izateko, ezohiko lekuetara eramango ditugu. Bezero gehienak leku ezagunetara joaten dira (adibidez, hiri handietako toki turistikoetara). Baina tokiko eta gutxi ezagutzen diren lekuak aurkituko ditugu ere, horrela bidaiariak esperientzia bakarra eta desberdina izango dute. Adibidez hiri handi batean bisita gidatua egitea eta, ondoren, hiritik hurbil dauden herriei bisita bat egitea, hango tradizioak eta gastronomia ezagutzeko.

Gure taldeak bezeroari ahalik eta esperientzia onena ematen saiatuko da; horrela gustura eta eroso sentituko dira. Gurekin denbora luzez egon diren bezeroak VIP moduan hartuko ditugu eta beraientzat bakarrik izango diren ustekabeak prestatuko ditugu, gainera, deskontu eskusiboak eskainiko dizkiegu. Horrek abantailak ekarriko dizkigu. Bezero zaharrak gurekin izan duten esperientzia kontatuko dute, eta horrek bezero berriak erakarriko ditu, zeren eta hauek ere irrikitan egongo dira guk eskeinitakoa ezagutzeko.